

EUSKAL MENDI ZINEMAGINTZAK 4 SARI MENDI FILMEN



Euskal zinegileak Mendi Film aurkezpenean

55 pelikula hautatu ziren iazko abenduko BBK Mendi Film Bilbao Bizkaia jaialdian. Euskal egiletzakoak 13 ekoizpen izan ziren. Haietako 10 aurkeztu ziren Sail Ofizialean, eta beste hirurak lehiaz kanpoko Zabalandi sailean. Euskal zinemaren loraldia ilusioz eta harrotasunez bizi dugun garaiotan, mendiko zinemagintzaren generoa ere aintzat hartu behar da, bai. Iazko Mendi Filmen pisu nabarmena izan zuen.

Hautaketa ofiziala Mendi Filmeko batzordeak egiten du. Iaz 226 hautagaitza aurkeztu ziren, oraindainoko langa altuena berdinduz, eta haietatik egin zen galbahea, tartean euskal egiletzako 13 ekoizpenak sartuz. Palmaresa, sariak, ordea, nazioarteko 5 adituk osatutako Epaimahaiak ebatzi zituen: Crystal Merril (AEB) Mountainfilm Telluride-eko zuzendaria, Michael Brown (AEB) eta Elena Goatelli (Italia) zinegileak,

'Sustraiak. Raíces perdidas': Luis Arrieta zuzendaria, eta Hiba, Abde eta Bachir protagonistak



Aleksandar Zarapchiev (Mazedonia) Echo Film Festivaleko zuzendaria, eta Carmen Martinez (Euskal Herria) Bizkaiko Koral elkarteko gerentea.

Eta euskal mendi zinemagintzak haien eskutik jo zuen goia. 12 sari banatu zituzten Mendi Filmen, eta palmaresaan 4 euskal zuzendari ageri dira, sekulako uzta.

Itsasora / Soinu Banda Onena

Mikel Urdangarin kantariaren lehen pelikula, Unai Basurko itsas-gizon eta lagunari eginiko aitortza sentibera eta artistikoa. Soinu Banda Koldo Uriartek ondu du. Filmak Galiziatik Euskal Herrira burututako itsas zeharkaldia du oinarri, Urdangarinek eskuratu berri zuen belaontzia handik hona ekartzeko Basurkok lagundu zion. Itsas-bizitza, eta hari darion poesia, gogortasuna eta lirika dakartza gogora filmak.

Izarren zaunka / Euskarazko Film Onenari EITB Saria

Nagore Eceiza zinegilearen film laburra, Iker Uranga eska-latzailearen ideia batean oinarritua. Mikel Saez de Urabain lagun duela, Txindokin honek sortutako bidea errepikatzen saiatuko da Uranga, eta jarduera hori baliatuko du barne ma-muak eta minak uxatzeko. Koldo Almandoz zinegileak sor-tutako gidoiari tinko helduta ondutako filma da Eceizarena.



Pasaban-Oiarzabal-Iñurrategi: 14 zortzimilakoen klubeko euskaldunak

Cantos y Flores / Kirol eta Abentura Film Onena

Julen Elorzak badu musa bat, Hillary Gerardi mendi korrikalari estatubatuarra (hura protagonista zela aurkeztu zigun duela bi urte 'La Gara' filma). 'Cantos y Flores' honetan, Gerardi, Karina Carsolioren bidelaguna da, bidai emozional eta espiritual batean. Carlos Carsolioren -14 zortzimilakoak osatzen 4. alpinista-, alaba da Karina, nazioarteko sona duen mendi korrikalaria hura ere. Bolivian menturatuko dira, Huayna Potosí, Illimani eta Sajaman FKT marka egiteko erronka bere eginez.

Sustraiak, raíces perdidas / Kultura eta Natura Film Onena

Luis Arrieta zuzendaritzan, eta talde bikaina inguruan: Dani Burgi gidolaritzan, Jesus Iriarte argazkilaritzan, Gorka Pastor musikan... Bai, 'Mendiak 1976' filma gogoangarria egin zuen lan taldea. 'Sustraiak, raíces perdidas' honetan, migrazioa da ardatza, eskalada eta gai sozialak uztarri berean bilduz. Migratzaile afrikarrak dira protagonista: Hiba, Bachir eta Manan. Rocopolisetik abiatu eta Pirinioetaraino zabalduz, tokiko eskalada komunitateak egindako harrera eta gizarteratzeko eskaintako laguntza erakusten ditu filmak. Mendi Film Bekak lagundutako lana da, eta Bilbon abenduan estreinatu eta gutxira Iruñeako Golem zinemetako karteldegian 3 aste egin zituen, harrera oso onarekin.

Lau hauez batera, Mendi Filmen jada eskarmentua baduten Jesus Mari Lazkano ('Natura Fugit'), Jon Herranz ('Harri, Orri, Arkatz') eta Alfonso Garcíak ('Un día al año') aurkeztu zituzten beren lan berriak. Mendi Filmen lehen aldiz parte hartu zutenak, berriz, Ibon Gaztañazpi ('Errío'), Imanol Lamana ('The road we never rode'), Unai Jaureguibeitia ('Tras la huella noruega'), Jon Mendizabal ('Aldabide') eta Gorka Ipiñazar-Haizea Huegun tandemak ('Sinkronia'), izan ziren.

Eta euskal egileen multzoan sartzen ez bada ere, 'Oiarzabal: entre Juan y Juanito' lanak ere aipamen berezia behar du. Juanito Oiarzabalen ibilbidea jorratu du Javier Álvaro zuzendari madrildarrak -'Al filo de lo imposible'-ko sortzaile Sebastián Álvarooren semea-, eta Mendi Filmeko Hasiera Ekitaldian estreinatzeaz batera, Gidoi Onenaren saria eman zion Epaimahaiak. EiTb eta RTVE filmaren babesle dira, eta euren programazio eta plataformetan aurkeztuko dute aurki.

Mendi Film 2025 - PALMARESA

Sari Nagusia – Gran Premio:
CHAMPIONS OF THE GOLDEN VALLEY
Ben Sturgulewski

Zuzendari onena – Mejor Director:
GIRL CLIMBER
Jonathan Glassberg

Gidoi Onena – Mejor Guión:
OIARZABAL. ENTRE JUAN Y JUANITO
Javier Álvaro

Argazkilaritza Onena – Mejor Fotografía:
SEE WHAT I SAW: KARAKORUM
Boris Peters

Epaimahaiaren Saria – Premio del Jurado:
BEST DAY EVER
Ben Knight & Berne Broudy

Soinu Banda Onena – Mejor Banda Sonora:
ITSASORA
Koldo Uriarte konposatzailea, Mikel Urdangarin zuzendaria

Euskarazko Film Onenari EiTb Saria – Premio EiTb a la Mejor Película en Euskera:
IZARREN ZAUNKA
Nagore Eceiza

Mendiko Film Onena – Mejor película de Alpinismo:
K2 MON AMOUR
Mathieu Rivoire

Eskaladako film onena – Mejor película de escalada:
OLD MAN LIGHTNING
Dawn Kish

Kirol eta Abentura Film Onena – Mejor película de Deporte y Aventura:
CANTOS Y FLORES
Julen Elorza

Kultura eta Natura Film Onena – Mejor Película de Cultura y Naturaleza:
SUSTRAIAK, RAICES PERDIDAS
Luis Arrieta

Film Labor Onena – Mejor Cortometraje:
LE MOULIN DES ARTISTES
Pierre Cadot